



KOMUNIKABIDEENTZAT DEIALDIA  
KALE EKINTZA ANTZERKITUA

**Legebiltzarraren erabakia baztertuz, Eusko Jaurlaritzaren murrizketek nazioarteko lankidetzan 2016ean jarraituko dutela salatuko du kale ekintza antzerkitu batek**

- Eusko Jaurlaritzaren 2016ko lankidetzaren aurrekontuen aurreproiektuak, PSE-EEren babesaren bidez, Legebiltzarrak onartutakoa baino murriztagoa da, bere agindua hautsiz.
- 2007an Eusko Legebiltzarrean onartutako Lankidetzaren Euskal Legea ere ez da betetzen. Honen arabera Eusko Jaurlaritzak 2012an bere aurrekontu osoaren %0,7 a lankidetzara bideratu behar zuen.

**ParlaMIENTO; promesas incumplidas en cooperación. Murrizketarik ez** lelopean Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundeak, nazioarteko lankidetzan diharduten 82 GKEek osatuta, kale **ekintza antzerkitu** hau antolatu du. **Ekimen deigarri eta ikusgarri** honekin, **Gobernuaren (PSE-EEren babesarekin) lankidetzarekiko errespetu faltagatik** eta **Legebiltzarretik -hiritartasunaren ordezkaritza gorenaren dena- datozen zenbait akordio ez betetzeagatik** sektore honen ondoeza sakona erakutsi nahi da.

Bertan, **zuen esku utziko ditugu Euskadi mailan ditugun datuak eta informazioak.**

-**DEITZEN DU:** Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea  
-**NOIZ:** 2015ko abenduaren 3an, ostegunean.  
-**NON:** Gasteizen, Eusko legebiltzarrean  
-**ORDUA:** 10:00etan

**Komunikabidei adierazpenak eskeiniko zaizkie.**

**Informazio gehiago:**

Jon González

Komunikazioa

Euskadiko GGKEen Koordinakundea

Tel. 945 28 07 45/685 73 31 72

E-posta: [comunicacion@ongdeuskadi.org](mailto:comunicacion@ongdeuskadi.org)

[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)

**Euskadiko GGKEen Koordinakundea** 1988an sortu zen eta Euskadiko hiru lurralde historikoetan kokatuta dauden eta nazioarteko lankidetzan ari diren garapenerako 82 GKEz osaturik dago. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak garapenean diharduten GKEak biltzen ditu. Erakunde horiek jarrera kode baten pean dihardute giza garapen iraunkorra lortzeko genero berdintasuna sustatuz.